

BATZARRAK ERATZEKO ARAUAK

I.- ALDEZ AURREKO BALDINTZAK

- a) **Hautetsien egiaztatutun aurkezpena.** Hautatutako buruak zein kideek aurkeztu beharko diote beren egiaztatutuna kargua uzten duen Kontzejuko buruari. Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak, eratze bilkura egin baino lehen, hautetsiak nor diren ziurtatzen duten ziurtagiriak igorriko ditu kontzejuetara.
- b) **Hautetsien interesen aitorpena.** Kontzejuetako hautetsiek, karguaz jabetu baino lehen, aitortu beharko dute balizko bateraezintasunaren kasuan dauden, eta diru-sarrerarik ematen edo ematen ahal dien edozein jarduera egiten duten. Orobat, beren ondare-ondasunak aitortu beharko dituzte. Aitorpen horrek kasuan kasuko osoko bilkuretan edo batzarretan onetsitako ereduie jarraituko die. Nolanahi ere, eredu horiek onetsi gabe badaude, NUKFren web-orriaren bidez (<https://www.fnmc.es/eu/>) ondasunen eta jarduketan aitortpenaren eredia eskura daiteke.
- c) **Azken bilkuraren akta onestea.** Hauteskundeari buruzko legediak batzarrak eratzeko bilkurarako ezarritako eguna baino hiru egun lehenago onetsi behar da azken bilkuraren akta. Kontuan izanik ekainaren 17an eratuko direla batzar berriak, Batzarrak ekainaren 14an egin beharko du amaiera bilkura, helburu bakarra izanik aurreko bilkuraren akta onestea, Toki Entitateen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 36. artikularekin bat.
- d) **Kontaketa berezia eta ondarearen inbentarioa prestatzea.** Kontzejua uzten duen buruak kontaketa berezirako agiriak prestatu behar ditu, udalbatza berria eratzen den egunean kontaketa eginen baita eta egiaztatuko baita eguneraturik daudela entitatearen eskudirua eta baloreak, entitatearen kutxan edo bankuetan egon.
- Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamentuaren 88.1 artikulua xedatzen duen bezala prestatu behar du kontzejuaren ondarearen gaineko dokumentazioa, gero egiaztatua izateko.
- e) **Eratze bilkuraren deialdia.** Jarduneko buruak egin behar du eratze bilkuraren deialdia, gutxienez bi egun baliodun lehenago, eta, ahal dela, Toki Entitateen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 36.1 artikulua aipatzen

duen amaiera bilkuraren ondoren. Deialdian aipatu beharko da Kontzeju Etxearen bilkuren aretoan eginen dela bilkura, eta zehaztuko da zer ordutan izanen den.

Kargua uzten duen burua kanpoan edo eri badago, edo ez badu nahi, edo deialdia egitea galarazten duen beste edozein arrazoiengatik, hautetsiek erabakiko dute, ados jarritakoan, zer ordutan hasiko den eratze bilkura.

II. – BATZARRA ERATZEA

Hauteskundeei buruzko legedia bete beharrez, ekainaren 17an eginen da kontzejuen batzar berriak eratze bilkura. Batzarra bilkura horretan egiazki eraturik gelditzeko, hautetsien gehiengo osoak joan behar du. Gehiengo hori lortzen ez bada, bi egun geroago eginen da beste bilkura bat (ekainaren 19an, alegia). Orduan, batzarra eraturik geldituko da edozein dela ere joaten direnen kopurua.

Eratze bilkura horretan, Adinaren Mahaia osatu behar da lehendabizi; haren eginkizun nagusiak dira egiaztagutunak egiaztatzea eta hautetsiei zin eginaraztea edo hitz emanaraztea. Hauteskundeei buruzko legediak ezartzen duenez, adin handieneko eta adin txikieneko zinegotziek osatuko dute Adinaren mahaia, eta idazkaria udalbatzakoa izanen da. Une hauetan kontzejuak idazkaririk ez duenez, aurreikusita baitago Batzarreko kide bat izatea idazkaria, komeniko litzateke adin txikieneko batzordekidea aritzea idazkari lanetan. Mahaiko burua adin handieneko hautetsia izanen da.

Adinaren Mahaia osatuta, egiaztagutunak egiaztatuko dira, eta hautetsi guztiek hitz eman edo zin eginen dute. Aintzat hartu behar da ezinbestekoa dela Konstituzioari men egiteko zin egitea edo hitz ematea guztiz bihurtzeko kontzejuko kide edo buru. Orain, zin egin edo hitz ematen ez bada, ez da automatikoki galduko izaera hori.

Bestalde, kontzejuko buruak kontzejuko buru eta kide den aldetik eman behar du hitza edo zin egin. Horren ondoren, bilkuraren buru bihurtuko da.

Konstituzio Auzitegiak 2014ko uztailaren 7ko epaian zuzendu zuenez, kontzejuko burutzari uko egiteak ez dakar berarekin kontzejuko kide izateari uko egitea, non ez den berariaz hala adierazten.

Halaber, komeniko litzateke eratze bilkura horretan idazkaria eta diruzaina ere hautatzea Batzarreko kideen artean. Horrekin loturik kontuan hartu behar da otsailaren 4ko Toki Administrazioa Berrantolatze 4/2019 Foru Legearen Zazpigarren Xedapen Iragankorra. Horri jarraiki, Batzarrak batzarreko kide bat gaituko du idazkaritzako lanetarako eta beste bat

diruzaintzako zereginetarako. Horregatik, beraz, udalbatzaren funtzionamendu egokia bermatze aldera gomendagarria da eratze bilkuran idazkaria eta diruzaina ere izendatzea.

Bukatzeko, gogora ekarri behar da eratze bilkuran kontaketa berezia egin eta udalbatzaren ondasunen eta eskubideen inbentarioa egiaztatuko dutela hautatutako kontzejuko buruak, kargua utziko duen kontzejuko buruak eta ordura arte diruzain lanetan aritu edo kontzejuaren gordailuzaina izan denak. Kasuan kasuko aktan jasoko da hori.